



KIROL JUSTIZIAKO EUSKAL BATZORDEAREN ERABAKIA, ZEINAREN BIDEZ EZESTEN BAITA GIPUZKOAKO JUDO ETA ELKARTUTAKO KIROLN FEDERAZIOKO LEHENDAKARI [REDACTED] JAUNAK EUSKADIKO JUDO ETA KIROL ELKARTUEN FEDERAZIOAREN HAUTESKUNDE BATZORDEAK 2016KO AZAROAREN 29AN HARTUTAKO ERABAKI JAKIN BATZUEN KONTRA AURKEZTUTAKO ERREKURTSOA

Espediente-zenbakia: 42/2016

AURREKARIAK

Lehena.- 2016ko abenduaren 7an, Gipuzkoako Judo eta Elkartutako Kirolen Federazioko lehendakari [REDACTED] jaunaren errekurtsoa aurkeztu zen Kirol Justiziako Euskal Batzordean (aurrerantzean, Batzordea). Bertan, Euskadiko Judo eta Kirol Elkartuen Federazioaren Hauteskunde Batzordeak 2016ko azaroaren 29ko bilkuran hartutako erabaki jakin batzuk inpugnatzen direla adierazten da.

Aurkeztutako errekurtsoan honako hau adierazten da, zehatz-mehatz:

«Azaroaren 29an, Euskadiko Judo Federazioaren Hauteskunde Batzordeak egun bereko akta bidali zuen modu telematikoan. Bertan, erakundeak hartutako hainbat erabaki jasotzen ziren.

Hurrengo egunean, azaroaren 30ean, Gipuzkoako Federazioak erantsitako errekurtsoa aurkeztu zuen, akta horretako lehen, bigarren eta hirugarren erabakiak aurkaratuz.



Hauteskunde Batzordeak hautagaien behin-behineko onespenaren kontrako errekurtsuak jartzeko eskaintzen dituen epeen "ezohiko laburtasuna" azpimarratu behar da, erantsi den hauteskunde-egutegian egiazta daitekeen moduan. Hori dela-eta, Euskadiko Federazioaren Hauteskunde Batzordeko eta Judo Club de San Sebastián Klubeko lehendakari [REDACTED] jaunak gaitzespen bat egin du, Gipuzkoako Federazioaren Hauteskunde Batzordeak oso epe laburra izan baitu hauteskunde-egutegiari dagokionez. Izan ere, Hauteskunde Batzordeak 24 ordu bakarrik ematen dizkio hautagaitzen behin-behineko onespenaren kontrako errekurtsua jartzeko, 2012ko otsailaren 19ko Aginduaren 32. artikuluan adierazitako epea aintzat hartu gabe, bertan bi egun balioduneko epea ezartzen baita Hauteskunde Batzordearen aurrean errekurtsuak jartzeko.

Bestalde, Euskal Federazioaren Hauteskunde Batzordeak ez du eginbide bera aplikatzen errekurtsuak ebaztean, bere egutegian bertan, bi eguneko epea gaineratzen baita ustezko errekurtsuak ebazteko. Kasu honetan ez da hori gertatu, Gipuzkoako Federazioak oraindik ez baitu azaroaren 30eko bere ebazpenaren inolako ebazpenik jaso.

*Dena den, Gipuzkoako Federazioak errekurtsua posta elektronikoz aurkeztu eta **lau egun naturaleko** epea (Aginduko 33.1 artikulua) igaro arte itxaron du, erantsitako dokumentuan adierazten den moduan.*

33. artikuluko hirugarren atalean berariaz jasotzen da, errekurtsua zehaztutako epean ebazten ez bada, hura ezetsizat jo ahal izango dela eta, hala, Kirol Justiziako Euskal Batzordera jotzeko bidea zabalik geratuko dela, erreklamazioa jartzeko bidea, alegia.

Euskadiko Federazioaren Hauteskunde Batzordearen aurrean formulatutako errekurtsuan adierazitakoa berresten dugu, hark ez baitio



erantzunik eman abenduaren 2ko bere aktan. Bertan, [REDACTED] jauna aldarrikatzen zen lehendakaritzarako behin betiko hautagai gisa, eta Euskal Federazioaren Batzar Nagusia biltzea beharrezkoa ez dela gaineratu zuen, kasu honetan, hautagai bat bakarrik onartu baita, Aginduko 68. artikuluan zehazten den moduan».

Errekurtsoaren alderdi garrantzitsuena azaldu dugu, gero aztertuko diren ondorioetarako, hasiera-hasieratik honako alderdi hauek azpimarratu nahi baititugu:

(I) Errekurtso-idazkia errekurtsoaren xedea identifikatzera, Euskadiko Federazioaren Hauteskunde Batzordearen jarduketa kritikatzera eta hura blokean igortzera mugatzen da, inpugnatu diren argudioei edo arrazoiei dagokienez, hau da, 2016ko azaroaren 30ean Hauteskunde Batzordeari aurkeztu zitzaizkien horiei dagokienez.

(II) Errekurtsoan, 2016ko azaroaren 30ean errekurtsoa aurkeztu izana berretsi arren, «*posta elektronikoz, erantsitako dokumentuan egiaztatzen den moduan*», eta 2016ko azaroaren 30ean datatutako errekurtso-idazki baten kopia aurkeztu arren, ez da errekurtso-idazki hori Hauteskunde Batzordeari aurkeztu izana egiaztatzen duen agiririk erantsi, ez posta elektronikoz ez beste bitarteko batzuen bidez.

(III) Batzordeari aurkeztutako errekurtsoan haren bidez Hauteskunde Batzordeak 2016ko azaroaren 29an onartutako lehen, bigarren eta hirugarren erabakiak aurkaratzen zirela berretsi arren, egiaz, 2016ko azaroaren 30ean Euskadiko Federazioaren Hauteskunde Batzordeari ustez aurkeztutako errekurtsoaren ustezko ezespenaren errekurtsoa jarri da.



Bigarrena.- Kirol Justiziako Euskal Batzordeak adierazitako errekurtsua izapidetzea eta, beraz, espedientea eskatu eta Euskadiko Judo eta Elkartutako Kirolen Federazioari entzunaldia ematea erabaki zuen.

Hirugarrena.- Euskadiko Judo eta Elkartutako Kirolen Federazioko Hauteskunde Batzordeak Batzordearen errekerimenduari erantzun dio, eta 2016ko abenduaren 16ko alegazio-idazkia bidali dio (Eusko Jaurlaritzak 2016ko abenduaren 21ean jaso zuen).

Alegazio-idazki horretan, Gipuzkoako Federazioaren errekurtsuan planteatutako funtsezko alderdiak ezeztatzeaz gain, zera berresten da, ustez, 2016ko azaroaren 30ean Hauteskunde Batzordean aurkeztu zen errekurtsuari dagokionez, Euskadiko Judo eta Elkartutako Kirolen Federazioak idazki hori jaso ez duela, eta, beraz, ezin izan zaiola erantzunik eman. Era berean, jasotako korrespondentziaren azterketa sakona egin dela adierazten da, posta elektronikoa nahiz mezularitza bidez, eta, beraz, idazki hori Hauteskunde Batzordeari igorri ez zaiola berretsi dezaketela. Horren ondorioz, Gipuzkoako Federazioaren errekurtsua onartezina da, 2016ko azaroaren 30eko errekurtsua ez baita Hauteskunde Batzordera iritsi.

Laugarrena.- Euskadiko Judo Federazioaren Hauteskunde Batzordeak egindako alegazioak aztertu ostean, eta, arestian adierazi den moduan, 2016ko abenduaren 7an Batzorde honen aurrean jarritako errekurtsuari erantsitako 2016ko azaroaren 30eko errekurtsuaren kopiak hura adierazitako epean aurkeztu izana egiaztatzeko moduko daturik edo erregistrorik gaineratzen ez zenez, 2017ko otsailaren 6an zera eskatu zitzaion errekurtsuari, 5 eguneko epean, eta errekurtsua ebatzi aurretik, Batzordeari honako informazio edo dokumentazio hau helaraz ziezaiola, kasuan kasuko legezko ohartarazpenak kontuan hartuta:



«2016ko azaroaren 30ean Euskadiko Judo eta Elkartutako Kirolen Federazioko Hauteskunde Batzordearen aurrean errekurtsua aurkeztu izanaren egiaztapena (sarrera-erregistroa, Correoseko bulegoaren zigilua, mezu elektronikoa entregatu izanaren mezua eta abar), datu hori epe barnean egiaztatzen ez bada edo eskatutako alderdia egiaztatzen ez bada, aurkeztutako errekurtsua ez onartu eta artxibatu egingo dela ohartaraziz».

Bosgarrena.- Egindako eskaerari 2016ko otsailaren 13an erantzun zaio, [REDACTED] errekurtsogile jaunak aurkeztutako idazki bidez, baina erantzun horretan, errekurtsogileak:

(I) 2016ko azaroaren 30eko errekurtsio-idazkia aurkeztu du berriz ere, 2016ko abenduaren 7ko bere errekurtsora gehitu zuen idazkia, alegia. Bertan, eta arestian adierazi den moduan, ez da hura aurkeztu izana egiaztatzen duen daturik edo erregistrorik jasotzen.

(II) Zera adierazi du, ez dituela ezagutzen «*hauteskunde-batzordeak zergatik ez duen jaso federazioak bere egunean aipatutako erabakien kontra jarritako errekurtsua, errekurtsua ohiko komunikazio-bideak erabiliz igorri baitzen*». Dena den, ez du zehazten zein diren ohiko komunikazio-bide horiek eta ez du, inola ere, eskatu zaion egiaztapena aurkeztu.

(III) Azkenik, errekurtsogileak zera alegatu du, modu subsidiarioan bada ere, 2012ko otsailaren 19ko Aginduaren 26.2 artikulua babespean, 2016ko abenduaren 7ko bere errekurtsua Kirol Justiziako Euskal Batzordearen kontrako inpugnazio zuzen edo auzibideko inpugnazio gisa har dadila, hauteskunde-prozesua amaitzean agindu horrek ahalbidetzen duen moduan.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK



Lehenengoa.- Euskadiko Kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legearen 138.b) artikulua eta Kirol Justiziako Euskal Batzordea arautzen duen urriaren 18ko 310/2005 Dekretuaren 3.b) artikulua eskumena aitortzen diote organo honi «*kirol-diziplinako ahalmena duten kirol-organo titularren erabakien aurka jarritako errekurtsok aztertzeko eta ebazteko*».

Bigarrena.- Azterketa sakonak egiten hasi aurretik, Euskadiko Judo eta Elkartutako Kirolen Federazioko Hauteskunde Batzordeak 2016ko abenduaren 16ko bere alegazio-idazkian planteatzen duen errekurtsoren onartezintasun-arrazoiak kontuan hartu edo ez zehaztu behar da. Onartezintasun-eskaera hori Gipuzkoako Judo eta Elkartutako Kirolen Federazioak 2016ko azaroaren 30ean 2016ko azaroaren 29an hartutako erabaki jakin batzuen kontrako errekurtsoa aurkeztu ez zuela dioen baieztapenean oinarritzen da; izan ere, Hauteskunde Batzordeari aurkeztutako errekurtso hori nahitaezkoa zen, gero, Batzordearen aurrean errekurtso horren ustezko edo berriazko ezespina errekurritu ahal izateko.

Gertakarietan, errekurtsogileak Batzordeari aurkeztutako 2016ko abenduaren 7ko errekurtsok adierazten diren 2016ko azaroaren 30eko errekurtsoren aurkezpenari buruzko argudioak errepikatzen dira, Batzorde honek 2017ko otsailaren 6an egindako errekerimenduaren erantzunean bezala.

Dokumentazio hori aztertu ostean, nabarmena dirudi Gipuzkoako Judo eta Elkartutako Kirolen Federazioak 2016ko azaroaren 30eko errekurtsoa aurkeztu izana egiaztatu ez duela.

2016ko azaroaren 30ean datatutako idazkia aurkeztu arren, idazki horretan ez da inolako sarrera-erregistrorik agertzen eta ez da hura hauteskunde-organo eskudunari igorri izanaren egiaztapenik aurkeztu, posta elektronikoz nahiz mezularitza bidez, edo hura aurkeztu izana frogatzen duen



beste bitarteko batzuk erabiliz. «*Errekurtsoa ohiko komunikazio-bideak erabiliz igorri zela*» dioen berrespen orokorra ez da nahikoa, ez baita zein komunikazio-bide erabili diren ere zehazten, are gehiago Batzorde honek egindako errekurtsoarean aurkezpena egiaztatzeko errekerimendua nabarmena zela eta erantzun generikorik edo formalik onartuko ez zuela kontuan hartuta, horiek ez baitote errekerimenduko terminoei erantzuten.

Hori frogatu ostean, errekurtsoa ez onartutzat jo behar da, Euskadiko Judo eta Elkartutako Kirolen Federazioko Hauteskunde Batzordeak behar bezala planteatzen duen moduan, Hauteskunde Batzordeari errekurtsoa jartzeko nahitaezko errekurtsio-bidea erabili ez delako hain zuzen ere, Kirol Justiziako Euskal Batzordeari errekurtsoa jarri aurretik.

Hirugarrena.- Batzordearen aurrean aurkeztutako errekurtsoarean onartezintasun-arrazoia kontuan hartuta, Gipuzkoako Judo Federazioak 2016ko abenduaren 7ko bere errekurtsioa kontuan har dadila eskatzen du, Kirol Justiziako Euskal Batzordearen zuzeneko inpugnazio gisa edo hauteskunde-prozesua amaitzean xedapenak ahalbidetzen duen jurisdikzio-bidea erabiliz, betiere Kultura sailburuaren 2012ko otsailaren 19ko Aginduaren 26.2. artikularen babespean, hauteskunde-araudiak egiteko eta euskal kirol-federazioek hauteskundeak egiteko irizpideak ezartzen dituen.

Errekurtsioa hauteskunde-arauak baimendutako zuzeneko errekurtsio gisa onartzeko asmo horrek –aurrez Hauteskunde Batzordearen aurrean hauteskunde-ekitaldiaren kontrako errekurtsioa jarri beharrik izan gabe– ez du inolako euskarri juridikorik, ez 2012ko otsailaren 19ko Aginduaren 26.2. artikuluan ez hauteskunde-prozesuan aplika daitekeen arau bakar batean ere.

Honako hau dio 2012ko otsailaren 19ko Aginduaren «*Hautesle-eroldari buruzko alegazioen*» 26.2. artikulua: «*Errekurtsioak erabaki ondoren, eta*



hauteskunde-errola behin finkatu eta gero, ez da inolako inpugnaziorik egiterik izango erroldaren inguruan hauteskunde-prozesuaren beste faseetan zehar, betiere prozesua amaitutakoan Kirol Justiziako Euskal Batzordean edo auzibidean abia daitezkeen inpugnazioei kalterik eragin gabe».

Horrenbestez, artikulua hori orain aztertzen ari garen errekursoaren xede ez den beste gai batzuei dagokio. Izan ere, 26.2. artikulua hautesle-erroldarekin lotutako alegazioei dagokie eta, aztertzen ari garen errekursoan, Hauteskunde Batzordearen 2016ko azaroaren 29ko erabakiak inpugnatzen dira. Bertan, Euskadiko Judo eta Elkartutako Kirolen Federazioko [REDACTED] jaunaren behin-behineko lehendakari-hautagaitza onartzen zen eta, beraz, hauteskunde-egutegia zuzentzen zen eta 2016ko abenduaren 17an ezohiko batzordea egiteko deialdia egiten zen, lehendakaria izendatzeko edo hautatzeko.

Horrez gain, eta azalpen hau beharrezkoa ez izan arren, 2012ko otsailaren 19ko Aginduaren 26.2. artikulua ez du aurreikusten Kirol Justiziako Euskal Batzordeari zuzeneko errekurtoa edo jurisdikzio-bidezko errekurtoa jartzeko egoerarik. Izan ere, Hauteskunde Batzordeak ebatzitako errekursoen kontrako helegitea aurkezteko momentua mugatzen du hauteskunde-erroldari dagokionez, eta finko bihurtu ostean, hauteskunde-prozesuaren amaieran bakarrik inpugnatu ahal izango da, Batzordearen aurrean edo jurisdikzio-bidea erabiliz.

Horren guztiaren ondorioz, Kirol Justiziako Euskal Batzordeak, honako hau

EBAZTEN DU



Gipuzkoako Judo eta Elkartutako Kirolen Federazioko lehendakari [REDACTED] jaunak aurkeztutako errekurtoa ez onartzea, Euskadiko Judo eta Elkartutako Kirolen Federazioko Hauteskunde Batzordeak 2016ko azaroaren 29an onartutako erabaki jakin batzuen kontra.

Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, aukerako berraztertze-errekurtoa aurkeztu ahal izango diote interesdunek Kirol Justiziako Euskal Batzordeari, hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera; bestela administrazioarekiko auzi-errekurtoa aurkeztu ahal izango dute Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian edo errekurto-egileen helbidearen arabera dagokienean, bi hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, hala xedatzen baitu Administrazioarekiko auzien jurisdikzioari buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legeak.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko otsailaren 23a.

JOSE LUIS AGUIRRE ARRATIBEL

Kirol Justiziako Euskal Batzordeko presidentea